


Langabeziaren hileko bilakaera, generoaren arabera



2025eko ekainean, berriz ere behera egin du Lanbiden erregistratutako langabeen kopuruak, eta **6.235 langabe zenbatu dira Donostian (2.712 gizon eta 3.523 emakume), maitatzean baino 134 pertsona gutxiago.**

- Langabezia % 2,1 egin du behera maitatzaren aldean.
- Langabezia % 5,6 egin du behera 2024ko ekainaren aldean.

Ekainean, langabeen kopuruak behera egin du, bai gizonen artean, baita emakumeen artean ere. Gainera, maitatzeko datuekin alderatuta, langabeziaren murrizketa antzekoa izan da bi generoetan (-%2,0 emakumeentzat eta -%2,3 gizonentzat).

Aurreko urteko hilabete beraren aldean, langabeen kopuruak behera egin du ere, % 5,6 (368 langabe gutxiago). 2024ko ekainaren alderatuta, gizon langabeen eta emakume langabeen kopuruak behera egin badu ere, gizonen langabeziak nabarmen jaitsiera handiagoa izan du emakumeena baino (% -7,6 gizonetan eta % -3,9 emakumeetan).

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
Langabezia indizea	6,8	7,4	9,2
Gizonen langabezia indizea	6,1	6,3	7,7
Emakumeen langabezia indizea	7,5	8,7	10,8
Genero arrakala	1,4	2,4	3,1

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea % 6,8ra jaitsi da (7,4 otsailean, 7,2 martxoan, 7,1 apirilean eta 7,0 ekainean) % 6,1 gizonen artean eta % 7,5 emakumeen artean (ehuneko 1,4 puntuko genero-arrakala).

	Langabezia indizea	EAErekiko aldea
Gipuzkoa	7,4	-1,8
Donostia	6,8	-2,4
Bizkaia	10,0	0,8
Bilbo	11,7	2,5
Araba	10,4	1,2
Gasteiz	10,8	1,6

Lurraldeen arteko konparaketan, Lanbideko datuen arabera, Gipuzkoa eta Donostia dira EAEen langabezia-indize txikiena duten lurralde historiko eta hiriburua.

		Hiletik hilerako aldaketa	Urtetik urterako aldaketa
Langabezia totala	6.492	% 100	% -1,9
Gizonezkoak	2.827	% 44	% -1,8
Emakumezkoak	3.665	% 56	% -1,9
Gipuzkoa	27.748	% -1,7	% -1,3
EAE	104.659	% -2,0	% -1,7

Maitatzaren aldean, langabeen kopuruak behera egin du Gipuzkoan eta EAEen ere (% -1,9 eta % -1,2).

2024ko ekainarekin alderatuta, Gipuzkoako eta EAEko langabeen kopuruak ere behera egin du (% -3,5 eta % -2,8)

Langabezia tasa EUSTATen arabera (2025 2. hiruhilekoa)

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea kontuan hartu beharrean (6,8 ekinean), EUSTATEk hiru hilean behin argitaratutako langabezia-tasa hartzen badugu erreferentziazat (Biztanleria aktiboaren jardueraren arabera estatistika), berriz ere ikusten dugu Gipuzkoa eta Donostia direla, 2025ko bigarren hiruhilekoan, langabezia-tasarik txikiena duten lurralde historiko eta hiriburua.

LANGABEZIA TASA (EUSTAT): 2024ko bigarren hiruhileko datuak.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	2,8	5,5	4,1
Donostia	3,4	4,5	3,9
Bizkaia	6,7	6,7	6,7
Bilbo	7,8	9,8	8,8
Araba	5,9	5,2	5,6
Gasteiz	5,9	5,2	5,5
EAE	5,3	6,1	5,7

Eustatek, Lanbidek ez bezala (Lanbide-ren bulegoetan izena emanda dauden eta enplegu-bilaketa aktiboa egiten duten pertsonak hartzen ditu kontuan), langabetzat hartzen ditu lana aktiboki bilatzen ari diren 16 eta 74 urte bitarteko pertsonak, hau da, azken 4 asteetan lana bilatzeko kudeaketak egin dituztenak (Lanbideren bidez edo beste edonola). Galdeketa baten bitartez egiten da neurketa eta unitate txikietan desglosatzean zehaztasuna galtzen du neurketak.



JARDUERA-TASA (EUSTAT, 2025ko bigarren hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	59,3	53,9	56,5
Donostia	59,7	53,4	56,3
Bizkaia	59,8	51,2	55,3
Bilbo	60,7	50,8	55,4
Araba	63,5	52,3	57,7
Gasteiz	63,2	51,8	57,3
EAE	60,2	52,2	56,0

OKUPAZIO-TASA (EUSTAT, 2025ko bigarren hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	57,6	50,9	54,1
Donostia	57,6	51,0	54,1
Bizkaia	55,7	47,8	51,6
Bilbo	56,0	45,8	50,6
Araba	59,7	49,6	54,5
Gasteiz	59,5	49,1	54,1
EAE	57,0	49,1	52,9

Langabeziaren banaketa, adinaren eta generoaren arabera



Ekainean, maiatzaren aldean, 35 eta 55 urte bitarteko 7 langabe gehiago erregistratu. Hala ere, 35 urtetik beherako 123 langabetu gutxiago erregistratu dira. Horrela, 2025eko ekainaren 30ean, Donostiak honako hauek ditu:

- 55 urtetik gorako 2.238 langabe erregistratu dira Lanbiden (-18 maiatzaren aldean).
- 45 eta 54 urte bitarteko 1.469 langabe erregistratu dira Lanbiden (+2 maiatzaren aldean).
- 35-44 urte bitarteko 1.120 langabe erregistratu dira Lanbiden (+5 maiatzaren aldean).
- 25 eta 34 urte bitarteko 969 langabetu erregistratu dira Lanbiden (-80 maiatzaren aldean).
- 25 urtetik beherako 439 langabe erregistratu dira Lanbiden (-43 maiatzaren aldean).

Aipatzekoa da fenomeno hori baldintzatuta dagoela ikasturtean ikasketak egiten ari diren gazteak lan-merkaturatzearengatik.

LANGABEZIA SEXUA ETA ADINAREN ARABERA:

	Gizonak	Emakumeak	Arrakala
25 urtetik beherakoak	% 60,6	% 39,4	-21,2
25 eta 34 urte bitartekoak	% 46,4	% 53,6	7,1
35 eta 44 urte bitartekoak	% 36,9	% 63,1	26,3
45 eta 54 urte bitartekoak	% 43,6	% 56,4	12,7
55 urtetik gorakoak	% 42,1	% 57,9	15,8

Emakume langabeen kopurua gizonena baino handiagoa da adin-tarte guztietan, 25urtetik beherakoetan izan ezik.

EMAKUMEEN ENPLEGUAREKIKO EGOERA:

Genero-berdintasunean aurrerapenak izan diren arren, emakumeen langabezia-tasa handiagoa da gizonena baino, eta horrek adierazten du oraindik ere oztopoak eta genero arrakalak daudela lan merkatuan, emakumeek lana lortzea eta karrera profesionalean aurrera egitea oztopatzen dutenak.

Hori are nabarmenagoa da pertsonak beste familia erantzukizun batzuei aurre egiten dieten adin-tarteetan, hala nola seme-alaben edo beste senitarte batzuen zaintza.

Testuinguru horretan, datu historikoek erakusten dute langabeziaren kronifikazioa dagoela 35 urtetik gorako emakumeen kolektiboan.

Egoera horrek 35 eta 45 urte bitarteko emakumeei eta 55 urtetik gorako emakumeei eragiten die batez ere, denbora luzean generoen arteko aldea 14 ehuneko-puntutik gorakoa baita.

Zehazki, apirileko datuen arabera, 35-44 urteko emakumeen kasuan, genero-arrakala ehuneko 22,8 puntukoa da (+ 1,8 ehuneko puntu martxoaren aldean).


Horren arrazoia izan daiteke adin tarte hori aitatasun, amatasun eta seme-alaben heziketarekin asoziatzen dela. Era berean, badirudi tradizionalki emakumei seme-alaben zaintza eta heziketa erantzukizun handiagoa esleitu dieten genero-erolek indarrean jarraitzen dutela, azken urteetan berdintasunean aurrera egin duten arren. Ondorioz, emakumeek lan-merkatuan duen parte-hartzeak eragina izaten jarraitzen du.

Donostiako hiritarren artean, nahiz eta, batzaz beste, emakumeek gizonen baino ikasketa maila altuagoa izan, goi-mailako ikasketak dituzten emakume langabeen ehunekoak (Lanbide Heziketa eta unibertsitatea) nabarmen gaitzitzen du hezkuntza-maila bera duten gizonena adin tarte guztietan.

Gainera, adin-tarte guztietan (batez ere 45 urtetik gorakoan adin-tarteetan) gizonak baino emakume gehiago kontratatzen badira ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, datuek bide ematen digute pentsatzeko emakumeek enplegua lortzea zailtzen duten oztopo eta arrakala horiek ere eragina dutela kontratazio-motan.

Beraz, emakumeek sinatutako kontratuen partzialtasuna gizonena baino ia ehuneko 21 puntu handiagoa da.

Langabeen hezkuntza maila



Langabeen % 43,6ek derrigorrezko ikasketak ditu bakarrik. Hala eta guztiz ere, langabeen % 19,5k unibertsitate-ikasketak ditu (Gipuzkoan eta EAEn baino ehuneko 7,5 puntu gehiago, gutxi gorabehera).

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, Donostiako langabetuak kualifikazio handiagoa du (gehiago dira unibertsitate-ikasketak dituzten langabeak, eta gutxiago, soilik, derrigorrezko ikasketak dituztenak).

Proportzioan, gizon langabe gehiago daude oinarritzko ikasketak dituzten emakume langabeak baino. Hala ere unibertsitate-ikasketak dituzten emakume langabeen proportzioa nabarmen handiagoa da ikasketa-maila bera duten gizonena baino. Beraz, eskura ditugun datuetan oinarrituta, esan genezake **Donostiako langabeen artean, oro har, emakumeek gizonek baino kualifikazio handiagoa dutela.**


PERTSONA LANGABEAREN PROFILA:

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
45 urtetik gorakoak	%59,5	%55,0	%55,8
30 urtetik beherakoak	%22,6	%25,3	%24,4
Iraupen luzeko langabezia	%45,5	%46,4	%50,6
Atzeritarrak	%15,5	%20,5	%19,2
EB-ko atzeritarrak / Atzeritarrak	%18,3	%16,8	%15,1
Unibertsitateko ikasketak dituztenak	%19,5	%11,9	%11,8
DBHra arteko ikasketak dituztenak	%43,6	%52,3	%55,0

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, honako hau nabarmendu behar da:




- **Proportzioan, Donostiak 45 urtetik gorako langabe gehiago ditu.**
- **Proportzioan, Donostian gazteen langabezia txikiagoa da.**
- **Proportzioan, Donostiak EAEk eta Gipuzkoak baino atzeritar jatorriko langabe gutxiago ditu.**
- **Donostian, EBtik datozen atzeritar langabeen proportzioa, atzeritar jatorriko langabeen guztizkoari dagokionez (% 18,3), Gipuzkoakoan erregistratutakoa (% 16,8) eta EAEn erregistratutakoa baino handiagoa (% 15,1).**

Langabeek gehien eskatzen dituzten lanbideak



Langabeek gehien eskatzen dituzten okupazioen artean, enplegu-eskatzailleek Lanbideren bidez interesa agertu dutenak, zerbitzuen sektoreko okupazio kualifikatuak eta kualifikaziorik gabeko okupazioak nabarmetzen dira.

Sinatutako kontratuak eta kontratatutako pertsonak



Ekainean, emakume langabeen eta gizon langabeen kopuruak behera egin duen hilabetean, **emakumezkoen kontratazioa gizonezkoena baino handiagoa izan da beste behin.**

Hala ere, **emakumeek sinatutako kontratuen ia erdiak lanaldi partzialekoak dira** (% 52), eta **gizonek sinatutako kontratuen % 31baino ez dira mota horretako kontratuak.**

Azkenik, **kontratatutako pertsona guztietatik, % 11,1emakume atzerritarrak ziren** (atzerritarrak Donostiako biztanleria osoaren % 10,6 dira).

Ekainean 9.301 kontratu sinatu dira, hau da, maiatzean baino % 17,3 kontratu gehiago (1.350 kontratu gehiago).

2024ko ekainaren aldean, 948 kontratu gehiago sinatu dira, hau da, kontratazioak % 11,3 egin du gora.

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Hileko kontratuak guztira	4.201	%45,2	5.100	%54,8	9.301
Aldi baterakoak	3.200	%44,9	3.924	%55,1	7.124
Mugagabeak	1.001	%46,0	1.176	%54,0	2.177
Lanaldi partziala	1.315	%33,1	2.661	%66,9	3.976
Lanaldi osoa	2.886	%54,2	2.439	%45,8	5.325

Kontratu horiekin 6.741 pertsona kontratatu dira, hau da, maiatzean baino % 21,5 gehiago (1.193 pertsona gehiago).


2024ko ekainaren aldean 554 pertsona gehiago kontratatu dira, hau da, kontratatutako pertsonen kopuruak % 8,9 egin du gora.

Batez beste, kontratatutako pertsona horietako bakoitzak 1,4 kontratu sinatu ditu.

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Kontratatutako pertsonak guztira	3.006	%44,6	3.735	%55,4	6.741
Sinatutako kontratuen ratioa	1,4		1,4		1,4
24 urtetik beherakoak	1.213	%48,1	1.310	%51,9	2.523
25 eta 34 urte bitartekoak	738	%44,5	922	%55,5	1.660
35 eta 44 urte bitartekoak	451	%44,7	558	%55,3	1.009
45 eta 54 urte bitartekoak	397	%40,1	594	%59,9	991
54 urtetik gorakoak	207	%37,1	351	%62,9	558
Atzerritarrak	557	%42,6	751	%57,4	1.308

- Nabarmendu dezakegu:**
- Adin-tarte guztietan kontratatu dira emakume gehiago gizon baino.
 - Sinatutako kontratuen % 23,4 mugagabeak ziren (apirilean %25,1 eta %22,8 maiatzean).
 - Sinatutako kontratuen % 42,7 lanaldi murriztukoak dira (%43,4 apirilean eta %44,4 maiatzean). Kontratu horiek gehienbat emakumeek sinatzen dituzte (kontratu horien % 67).
 - Kontratuen % 55 35 urtetik beherakoek sinatzen dituzte.
 - Kontratuen % 23 45 urtetik gorakoek sinatzen dituzte. Horietatik % 61 emakumeak dira.
 - Kontratatutako pertsonen % 19,4 atzerritarrak ziren. Gainera, kontratatutako atzerritar jatorriko pertsonen % 57 emakumeak ziren.

Kontratuak sektore nagusien arabera¹



OSTALARITZA

- Sektoreak hiriko kontratazioan duen pisua zertxobait txikitu du eta hirian sinatu diren **kontratu guztien % 19,5** sinatu ditu (%13,7 otsailean, %17,3 martxoan, % 19,5 apirilean eta %20,2).
- Hiriko **kontratu mugagabe guztien % 37,4** sinatzen ditu (% 23,7 otsailean, % 30,3 martxoan, %36,1 apirilean eta %37,7 maiatzan). Beste behin, **sektore horretan sinatu da kontratu mugagabeen bolumen handiena**, 816 kontratu mugagabe (681 maiatzan).
- Ostalaritzan sinatutako kontratuak % 44,3 mugagabeak dira** (% 42 martxoan, % 46,5 apirilean eta %42,6 maiatzan)
- Kontratazioaren **partzialtasuna murriztu egin da ostalaritza sektorean**. Sinatutako kontratuak % 50,3 lanaldi partzialekoak dira (% 62 otsailean, % 57 martxoan, % 51,3 apirilean eta %58,8 maiatzan).

MERKATARITZA

- Hiriko kontratuak % 11,6 sinatu ditu** (% 13 apirilean eta %11,5 maiatzan).
- Hiriko kontratu mugagabeak % 13** (% 14,7 apirilean eta % 15,3 maiatzan) eta **lanaldi partzialeko kontratuak % 17,2** sinatu ditu (%19,4 apirilean eta %16,3 maiatzan).
- Merkataritzan sinatutako kontratuak % 26,4 mugagabeak dira** (%29 martxoan, %19,4 apirilean eta %30,3 maiatzan).
- Merkataritzan erregistratutako kontratuak % 63,4 lanaldi partzialekoak dira** (%63 martxoan, %64,6 apirilean eta %62,7 maiatzan).

¹SEIC: SEIC terminoak "Ezagutzako Zerbitzu Intentsiboak" kontzeptuari egiten dio erreferentzia, balio erantsi handia erakusten duen zerbitzu-tipologia. SEICak, era berean, **pertsonen zuzendutako SEICetan** (hezkuntza eta osasuna) eta **enpresei zuzendutako SEICetan** banatzen dira (ingeniaritzako, ikerketako, aholkularitzako, sormeneko jarduerak intentsiboetako eta abarretako jarduerak).

SERVICIOS OPERATIVOS Sektore hauek biltzen ditu: garraioa eta biltegiratzea (374 kontr.), finantza- eta aseguru-jarduerak (31 kontr.), higiezin-jarduerak (10 kontr.), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (1.193 kontr.), administrazioa publikoa (34 kontr.), beste zerbitzu batzuk (175 kontr.) eta etxetako jarduerak (136 kontr.).

KONTRATU MUGAGABEAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	5 (%0,2)	%80,0	%20,0
Eraikuntza	59 (%2,7)	%94,9	%5,1
Industria	68 (%3,1)	%73,5	%26,5
ostalaritza	816 (%37,4)	%51,1	%48,9
Merkataritza	284 (%13,0)	%35,9	%64,1
SEIC - PERTSONAK			
Hezkuntza	75 (%3,4)	%32,0	%68,0
Osasuna eta gizarte zerb.	149 (%6,8)	%22,8	%77,2
SEIC - ENPRESAK			
303	(%13,9)	%54,1	%45,9
Zerbitzu operatiboak	420 (%19,3)	%35,7	%64,3

JARDUNALDI PARTZIALEKO KONTRATUAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	0 (%0,0)	-	-
Eraikuntza	13 (%0,3)	%76,9	%23,1
Industria	124 (%3,1)	%56,5	%43,5
ostalaritza	926 (%23,3)	%39,2	%60,8
Merkataritza	682 (%17,2)	%29,2	%70,8
SEIC - PERTSONAK			
Hezkuntza	252 (%6,3)	%24,2	%75,8
Osasuna eta gizarte zerb.	684 (%17,2)	%15,6	%84,4
SEIC - ENPRESAK			
439	(%11,0)	%53,1	%46,9
Zerbitzu operatiboak	856 (%21,5)	%31,8	%68,2

Behin-behinekotasunak oso handia izaten jarraitzen du hirian; Donostian sinatzen diren 10 kontratutik 2,4 baino ez dira mugagabeak (aurreko hilabeteetako maila berdina).


Behin-behinekotasuna jarduera-sektore hauetan nabarmentzen da batez ere; Industria, hezkuntza, eta osasun / gizarte zerbitzuen sektorean (sektore horietan sinatutako kontratuak % 83, % 85, eta % 89 aldi baterakoak dira, hurrenez hurren).

Lanaldiaren partzialtasuna bereziki garrantzitsua da ostalaritzan, merkataritzan, hezkuntzan eta osasun sektorean. Gainera, azkenengo honetan, non kontratuak % 49,9 lanaldi partzialekoak den, mota honetako kontratuak % 84 emakumei egiten zaizkie (oso sektore feminizatua dugu honako hau).

Emakumeek ez dute ia presentziarik lehen sektorean (%5), industriak (%29) eta eraikuntzak (% 7) eskaintutako kontratazioan. Hala ere, hezkuntzako kontratuak % 75 eta osasun-sektoreko kontratuak % 76 emakumeen kolektiboarentzat dira.

DSBEaren hartzaileak


Ekainean zehar **3.566 pertsonak jaso zuten DSBEa hirian** (apirilean baino pertsona bat gutxiago).



Nabarmendu daiteke:

- DSBEa jaso zuten pertsonen **% 60,7 emakumeak dira**.
- 55 urtetik gorako pertsonak DSBE jasotzen dutenen % 48 dira**.
- DSBEa jasotzen dutenen % 21,8k lanaren osagarri gisa jaso dute.
- Donostian DSBE jasotzen zutenen % 30 goi-mailako ikasketak zituen (Lanbide Heziketa edo unibertsitateak).
- Gipuzkoarekin eta EAEREkin alderatuta, nabarmentzekoa da Donostiako DSBEa jasotzen duen pertsonak adin eta kualifikazio handiagoa izateko joera duela.

DSBEaren hartzaileak auzoaren arabera



DSBE-AREN HARTZAILEAREN PROFILA:

	Donostia	EAE	Gipuzkoa
< 30 urte	% 7,9	% 9,0	% 8,6
30 – 45 urte	% 24,1	% 27,8	% 27,3
45 – 55 urte	% 20,4	% 22,7	% 21,7
> 55 urte	% 47,7	% 40,6	% 42,4
barrutitik kanpora	-	-	-
Derrigorrezko ikasketak	% 53,5	% 61,0	% 58,5
Batzilergoa	% 8,6	% 6,9	% 6,8
Lanbide Heziketa	% 22,3	% 18,4	% 20,8
Unibertsitatea	% 7,8	% 4,5	% 4,9
Informaziorik gabe	% 7,8	% 9,2	% 9,0
Lanaren osagarritasuna	% 21,8	% 20,3	% 21,6
Oinarritzko DSBE modalitatea	% 78,2	% 79,7	% 78,4
Gizonak	% 41,9	% 42,1	% 41,8
Emakumeak	% 59,3	% 57,9	% 58,2

DSBE-AREN HARTZAILEAK AUZOAREN ARABERA:

Auzoak	Hiritar kopurua	DSBEaren hartzaileak	Auzokide guztiekiko %
Aiete	14.400	135	%0,94
Altza	20.004	558	%2,79
Amara Berri	29.253	421	%1,44
Antiguo	13.729	141	%1,03
Añorga	2.695	28	%1,04
Ategorrieta-Ulía	3.923	67	%1,71
Centro	21.209	352	%1,66
Egia	14.216	355	%2,50
Gros	17.211	291	%1,69
Ibaeta	9.738	126	%1,29
Igeldo	1.081	7	%0,65
Intxaurrondo	15.426	506	%3,28
Loiola	6.057	178	%2,94
Martutene	2.654	81	%3,05
Miracruz-Bidebieta	8.616	294	%3,41
Miramón-Zorroaga	2.370	22	%0,93
Zubieta	292	1	%0,34